




Autoen matrikulazioen gorakada handia

Turismoen matrikulazioa Euskadin
Urte bakoitzeko urtariletik urrira bitartean



Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Trafiko Zuzendaritza Nagusiak berriki argitaratu dituen datuen arabera, urrira arte 28.530 auto matrikulatu dira Euskadin, hau da, % 21,4ko igoera izan da aurreko urteko aldi beraren aldean. Zi-frak oraindik pandemiaren aurreko mailetara iristen ez badira ere, merkatuak susperraldi argia erakusten du azken lau urteetako salmentak gaituz. .

Etxebizitzaren salmenta %17,1 hazi da irailera arte

Euskadin saldutako etxebizitzak
Urte bakoitzeko urtariletik irailera bitartean




Iturria: INE.

Aurtengo urteko lehen bederatzi hilabeteetan, etxebizitzaren salerosketa Euskadin %17,1 hazi zen, aurreko urteko aldi beraren aldean. Guztira, 20.000 etxebizitza inguru saldu ziren, 2007an lortutako mailetatik hurbil.



Euskadiko esportazioak %3,6 gutxitu dira

Atzerrira esportatutako ondasunen balioa
Urte bakoitzeko urtariletik irailera. Milioiak




Iturria: Eustat.

Irailera arteko metatuan, Euskaditik atzerrirako ondasunen esportazioak %3,6 murriztu ziren aurreko urteko aldi beraren aldean. Portaera zertxobait hobea izan zen esportazio ez-energetikoetan, %0,8 egin baitzuten atzera tarte horretan. Merkataritza saldoak positiboa izaten jarraitzen du.

Hoteletako gaualdiak berriro gehitu dira

Hoteletan igarotako gaualdiak
Urte bakoitzeko urtariletik urrira. Milakoak



Iturria: Eustat.

Urrira arte, Euskadiko hotel establezimenduetan igarotako gaualdiak %4,0 gehitu ziren aurreko urteko aldi beraren aldean. Guztira, sei milioi eta zazpiehun mila gaualdi baino gehiago izan ziren, tarte horretan serie historiko osoan izandako erregistrorik altuena.